

## “BERMEOKO BONUA” KANPAINA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

### 1. HELBURUA.

“Bermeoko bonua”ren helburua herriko kontsumoa bultzatzea da. Egitasmo hau Bermeoko Udalaren ekimena da.

### 2. BONUAREN EZAUGARRIAK.

Bono mota bakoitza erosteko prezioa honako hau da:

- **4 euro** eta **6 euroko** gastua egin daiteke.
- **10 euro** eta **15 euroko** gastua egin daiteke.
- **20 euro** eta **30 euroko** gastua egin daiteke.

Guztira **7.000** bono aterako dira **7 hilabetetan** banatuta, hau da, **hilean 1.000 bonu**. Hilabete bakoitzean bono mota bakoitzeko kopuru jakin bat aterako da:

- 6 euroko gastua egin daitekeenak: hilean 200 bono.
- 15 euroko gastua egin daitekeenak: hilean 500 bono.
- 30 euroko gastua egin daitekeenak: hilean 300 bono.

Hiru gastu mota egin daitezkeen bonoak hainbat establezimendutan erabili ahal izango dira. **15 euro eta 30 euro** gastatzeko bonoak **komertzioetan, enpresa txikietan eta ostalaritzan** erabili ahal izango dira. Baina **6 euro gastatzeko bonuak ostalaritzan baino** ezin izango dira erabili.

Era berean, erosketa bakoitzeko **gehienez bonu bi** erabili ahal izango dira. Gastatzeko kopuru desberdina daukaten bonoak batu ahal izango dira, esaterako:

- 15 euro eta 30 euro gastatzeko bonoak **komertzioetan eta enpresa txikietan**:
  - 15 euroko bonu bi
  - 30 euroko bonu bi
  - 15 euroko bonu bat + 30 euroko bonu bat
- **6 euro, 15 euro eta 30 euro** gastatzeko bonoak **ostalaritzan**:
  - 6 euroko bonu bi

- 30 euroko bonu bi
- 15 euroko bonu bi
- Euron arteko konbinazioak, baina **guztira bonu bi** baino ezin izango dira batu.

**Erosketa bakoitzeko bonu bi batu ahal izango dira gehienez** eta ezin izango dira diruagatik aldatu, eta ez da bueltarik itzuliko inoiz. Hau da, bono bakoitzeko, gastua 6 euro, 15 euro eta 30 eurokoa edo handiagoa izango da eta gastu bereko edo desberdineko bonoen batuketan eginda ere, gastua zenbateko hori baino handiagoa izango da.

### 3. BONUA ESKURATZEA ETA BONUAK GASTATZEKO EPEA

“Bermeoko bonua” kanpaina 7 hilabetetarako da. Hilero, modu orokorrean, hilerako 1.000 bonu aterako dira. Kanpaina dagoen bitarteko hilabeteetan bonoak, KUTXABANKeko bulegoetan dauden SEJetan (Sarrerak Erosi eta Jasotzeko terminala) erosiko dira, edo bestela on-line Bermeoko Udaleko web orrialdean.

Hilabete bakoitza hurrengo hilabetearekiko kanpaina independentea izango da, hasiera eta amaiera izango duena. **Kanpainak irauten duen hilabete bakoitzean pertsona bakoitzeko 4 bonura arte** eskuratu ahal izango dira (KUTXABANKeko bezeroentzat ez du inolako gain kosturik egongo, gainerakoentzat bono bakoitzeko 0,60€).

KANPAINAKO HILABETEA	BONU KOP.	BONUAK EROSTEKO DATAK (biak barne)	BONUAK ERABILTZEKO DATAK (biak barne)
Ekaina-uztaila	2.000	Ekainaren 22a-uztailaren 29a	Ekainaren 22a-uztailaren 30a
Abuztua	1.000	Abuztuaren 1a- abuztuaren 30a	Abuztuaren 1a- abuztuaren 31
Iraila	1.000	Irailaren 1a- irailaren 29a	Irailaren 1a- irailaren 30a
Urria	1.000	Urriaren 1a-urriaren 30a	Urriaren 1a-urriaren 31
Azaroa	1.000	Azaroaren 1a- azaroaren 29a	Azaroaren 1a- azaroaren 30a
Abendua	1.000	Abenduaren 1a-abenduaren 30a	Abenduaren 1a-abenduaren 31

Hilabete bakoitzean erosten diren bonuak hilabete horretan bertan erabili behar dira, ezin dira hurrengo hilabeterako pilatu, ezta hurrengo hilabetean erabili ere. Adibideak:

- Abuztuaren 15ean erosten badut bonu bat, abuztuaren 31ra arte daukat erabiltzeko.
- Ekainaren 25ean erosten badut bonu bat, uztailaren 30era arte daukat erabiltzeko. Hau da hilabete bi batzen dituen epealdi bakarra.
- Abuztuan erosten badut bonu bat, EZIN DUT erabili abuztua ez den hilabetean.

Salbuespenez, erakunde antolatzaileak epeak luzatu ahalko ditu, bonu kopurua handitu, salgai jarritako bono mota kopurua aldatu, eta baita euren zenbatekoa eta gastatu daitekeena ere, "Bermeko bonua" kanpainaren beharrianak eta eboluzioa kontuan hartuta.

#### **4. ESTABLEZIMENDUEK PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.**

Saltzeko lekua Bermeon duten pertsona fisiko edo juridikoak eta 15 langile edo gutxiago dutenak (autonomoak eta besteren konturako langileak kontuan hartuta); beti ere, jarduera nagusia honako epigrafe hauen barruan sartzen bada:

##### **04 Kirolari lotutako jarduerak**

049 Beste inon sailkatu gabeko kirolarekin zerikusia duten bestelako jarduerak

##### **64 Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako, salmenta, betiko establezimenduetan egiten denean**

641 Fruitu, ortuariak, barazkiak eta tuberkuluen txikizkako salmenta

642 Haragi eta haragi hondakinen txikizkako salmenta: haragiz elaboratutako ekoizkinena, hala nola haragien eratorriena; arrautzena, granjetako untxiena, ehizarena; eta aipatuen eratorriena

643 Arrainen eta arrain ekoizkinen txikizkako salmenta, hala nola arrai haztegiako ekoizkinena eta barakuiluena

644 Ogiaren, pastelen, gozokien eta antzekoen txikizkako salmenta, hala nola esnearen eta esnegaiena

645 Ardo eta era askotariko edarien txikizkako salmenta

646 Tabako gaien eta erretzailearentzako artikuluen txikizkako salmenta

647 Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako salmenta

##### **65 Elikagaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako salmenta, establezimendu finkoetan**

651 Oihalgintza produktuen, jantzigintza, oinetakogintza, larru eta larruki artikuluen txikizkako salmenta

652 Sendagaien eta farmazia produktuen txikizkako salmenta; drogei eta garbiketarako artikuluen txikizkako salmenta; lurringintza eta era guztietako kosmetikoen; oro har produktu kimikoen, eta belar dendetako belar eta landareen txikizkako salmenta.

653 Etxe eta eraikuntza ekipamendurako artikuluen txikizkako salmenta

656 Ondasun erabilien txikizkako salmenta, hala nola, etxean erabiltzeko altzari, jantzi eta tresna arruntena

657 Musika tresnen eta beren osagarrien txikizkako salmenta, oro har

659 Txikizkako beste salmenta mota bat

**66 Salmenta misto edo integratua, establezimendu finkotik kanpoko txikizkako salmenta (azoka txiki ibiltariak, noizbehinkako edo aldizkako azokak); biltegi erakusketa errejimeneko eta aparatu automatiko bidezko salmenta, posta eta katalogo bidezko zenbait ekoizkinen txikizkako salmenta**

661 Salmenta misto edo integratua saltoki handietan

662 Txikizkako salmenta mistoa edo integratua

### **67 Elikagaien zerbitzuak**

671 Jantoki zerbitzuak

672 Kafetegietan

673 Janaridun edo janari gabeko kafetegi eta tabernetan

675 Kiosko, barraka edo antzeko lokaletan ematen diren zerbitzuak, merkatu edo hornidura plazetan, bide publikoan edo lorategietan kalean ematen direnak

676 Txokolategi, izozkitegi eta ortxategietako zerbitzuak

### **88 Askotariko profesionalak**

882 Turismo-gida

883 Turismoko gida interpretatzaileak

### **97 Zerbitzu pertsonalak**

971 Ikuztegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak

972 Ileapaindegiak eta gorputz apaindegiak

973 Argazki zerbitzuak, argazkietarako makina automatikoak eta fotokopia zerbitzuak

975 Enmarkazio zerbitzuak

**Hurrengo JEZk kanpo geratzen dira, nahiz eta Alarma egoerarengatik itxi behar izan duten:**

663 Txikizkako salmenta, merkatal establezimendu finkotik kanpo egitea (azoka txiki ibiltariak, noizbehinkako azokak eta aldizkakoak)

664 Salmenta, gordailuetako erakusketa bidez eta aparatu automatikoen bidez egitea

665 Zenbait gairen txikizkako salmenta, posta bidez edo katalogo bidez egiten denean

674 Jantoki, kafetegi eta kafetegi tabernetako zerbitzu bereziak

677 67 eta 68 multzoetako 671, 672, 673, 681 eta 682 taldeetan sailkatutako establezimenduek eskainitako zerbitzuak, aipatu establezimenduetatik kanpo emanak. Elikadurari lotutako beste zerbitzu batzuk

974 Etxeko zerbitzuak ematen dituzten agentziak

979 B.l.s.g.ko zerbitzu pertsonalak

## 5. KANPAINAN PARTE HARTZEA.

Kanpainaren iraupena eta bizi dugun egoera berezia kontuan hartuta, kanpainan parte hartzeko epe bi eskainiko dira:

- 1. epea: **maiatzaren 25etik ekainaren 5era** (biak barne). Aldi honetan parte hartzea erabakitzen duena kanpaina osoan egongo da izena emanda "Bermeoko bonua"n.
- 2. epea: **Abuztuaren 3tik abuztuaren 17ra** (biak barne) Aldi honetan parte hartzea erabakitzen duena irailerako, urrirako, azarorako eta abendurako izena emanda egongo da "Bermeoko bonua" kanpainan.

Epe bietako edozeinetan parte hartzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- **Parte hartzeko eskaera orria beteta eta ondoren ageri diren hiru agirietariko bat:**

- Aurreko hileko autonomoen kuotaren ordainagiriaren kopia (edo dagokion araubidekoa).
- EJZren alden eta baje ziurtagiriaren kopia
- Jarduera uztearen ebazpena edo eskaera

1. epea: Agiriak Behargintza bulegoko [behargintza@bermeo.eus](mailto:behargintza@bermeo.eus) helbidean entregatu beharko dira.

2. epea: Agiriak Behargintza bulegoko [behargintza@bermeo.eus](mailto:behargintza@bermeo.eus) helbidean entregatu beharko dira edo aurrez aurre Behargintza bulegoan (Zubiaur tar Kepa kalea, 26-28. Ordutegia: astelehena-barikua: 9:00-14:00.)

## 6. ESTABLEZIMENDUEK BONUAK JUSTIFIKATZEA ETA ESTABLEZIMENDUEI BONOAK ORDAINTZEA:

“Bermeoko bonua” kanpaina 7 hilabeterako diseinatuta dago, baina bonuak erosteko eta erabiltzeko aldi bakoitza, justifikatzeko eta komertzioei bonuak ordaintzeko aldi moduan hartuko da.

Justifikaziorako 6 aldi ezarri dira kanpaina osorako eta establezimenduek bonuak kobratzeko 6 aldi:

KANPAINAKO HILABETEA	ESTABLEZIMENDUEK BONUAK JUSTIFIKATZEA (biak barne)	UDALAK ORDAINTZEKO DATAK (biak barne)
<b>Ekaina- uztaila</b>	Uztailaren 20a-uztailaren 24a	Uztailaren 27a-abuztuaren 7a
<b>Abuztua****</b>	Irailaren 21a- irailaren 25a	Irailaren 28a- urriaren 9a
<b>Iraila</b>	Irailaren 21a- irailaren 25a	Irailaren 28a- urriaren 9a
<b>Urria</b>	Urriaren 19a-urriaren 23a	Urriaren 26a-azaroaren 6a
<b>Azaroa</b>	Azaroaren 16a- azaroaren 20a	Azaroaren 23a-abenduaren 4a
<b>Abendua****</b>	Urtarrilaren 4a- urtarrilaren 15a	Urtarrilaren 18a- urtarrilaren 29a

- 2020ko uztailaren 22a jai eguna da eta Behargintza bulegoa itxita egongo da.
- 2021eko urtarrilaren 6a jai eguna da eta Behargintza bulegoa itxita egongo da.

Parte hartzen duten enpresek goiko taulan adierazitako aldi guztietako justifikazioa egin ahal izango dute, edo hainbat hilabetetako justifikazioa batu ahal izango dute, kontuan izanda udalak bonoen zenbatekoa ordaintzea aurkeztutako hilabetera eta dagokion ordainketa aldira atzeratuko dela.

Parte hartzen duten enpresek **Behargintzaren bulegoan** aurkeztu beharko dute (astelehenetik barikura, 9:00etatik 14:00etara, aurrez hitz ordua eskatuta) justifikatu beharreko aldiko bono guztiak (adierazitako datetan) eta **bonuak entregatzeko fitxa**. Fitxaren kopia, egiten den beste justifikaziotan aurkeztu ahal izango da.

Aldi horietan erabilitako bonuak dagokion faktura sinplifikatuarekin joan beharko da. Hau da, faktura sinplifikatu bakoitzak erosketa horretan erabilitako bonoak izan beharko ditu.

Abenduko azken justifikazioan, bonuak ere entregatuko dira dagokien faktura sinplifikatuekin, asebetetze inkestarekin eta bonoak entregatzearen fitxarekin batera.

Justifikazioen ordainketa eskaera orrian adierazitako kontu korronte zenbakian egingo dira.

## **7. PARTE HARTZEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BETEBEHARRAK.**

Parte hartzen duten establezimenduek honako betebeharrak dituzte:

- Bonu bakoitzeko faktura sinplifikatu bana egitea 6 euro, 15 euro eta 30 euroko baliokoak edo balio altuagokoak. Bonoak batu egiten badira, dagokion faktura sinplifikatua gutxienez batutako bonoen zenbatekoaren bestekoa izan beharko da.
- Janto plataforma erabiltzea bono GUZTIAK egiaztatu eta ezeztatzeko.
- Oinarri hauetan ezarritako epeak errespetatzea.
- Erakuslehoan edo atean (edo ondo ikusi ahal den beste lekuren baten) kanpainaren identifikazio-materiala ipini.
- Kontsumitzaileei kanpainaren ezaugarrien berri eman.
- Antolatzaileei eskatzen duen informazio eta agiri guztiak ematea, kanpainaren baldintzak modu egokian ezartzen direla egiaztatu ahal izateko.

## **8. BATERAEZINTASUNAK.**

“Bermeoko bonua” kanpaina Bizkaiko Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak helburu bererako egiten duen bestelako edozein kanpainarekin bateragarria da.

Erosketa berean beste erakunde batzuetako bonuak erabiltzen badira, faktura sinplifikatuan jasoko da, bono kopurua eta euron zenbatekoa, eskuz.

Beste udal batek helburu berarekin egiten duen edozein kanpainarekin bateraezina izango da.

## **9. EZ BETETZEAK.**

Oinarri hauetan ezarritako epe eta betebeharrak ez betetzeak kobratzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

## **10. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEIA**

Kanpaina honetan lortutako datuak Bermeoko Udalaren titulartasuneko fitxategietan gordeko dira, kanpaina honetako baldintzak aplikatzeko edo prestakuntzarekin edo informazioarekin lotutako etorkizuneko komunikazioetarako. Atxikitako establezimenduek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Bermeoko Behargintzako bulegoan, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen 5. artikulua araberaren arabera.

## **11. ERANSKINAK**

**I. eranskina:** Kanpainako datarik garrantzitsuenen eta kanpainako justifikazioen laburpen taula.

Bermeon, 2020ko maiatzean

**BEHARGINTZA**

**94 617 91 90**

Zubiaur tar Kepa kalea, 26-28

Bermeoko Udal Azoka, 1. solairua

[behargintza@bermeo.eus](mailto:behargintza@bermeo.eus)



**I. eranskina: Kanpainako datarik garrantzitsuenen eta kanpainako justifikazioen laburpen taula.**

<b>EKAINA - UZTAILA / JUNIO - JULIO</b>	<b>EPEAK / PLAZOS</b>
<b>Bonu Kopurua / Cantidad de bonos:</b>	<b>2.000</b>
<b>Bonuak erosi / Compra de bonos:</b>	<b>Ekainak 22 – uztailak 29 / 22 junio – 29 julio</b>
<b>Bonuak erabili / Utilización de bonos:</b>	<b>Ekainak 22 – uztailak 30 / 22 junio – 30 julio</b>
<b>Justifikazio epea / Plazo justificación:</b>	<b>Uztailak 20 - uztailak 24 / 20 julio – 24 julio</b>
<b>Udalak ordaintzea / Pago del ayuntamiento:</b>	<b>Uztailak 27 – abuztuak 7 / 27 julio – 7 agosto</b>
<b>ABUZTUA / AGOSTO ****</b>	<b>EPEAK / PLAZOS</b>
<b>Bonu Kopurua / Cantidad de bonos:</b>	<b>1.000</b>
<b>Bonuak erosi / Compra de bonos:</b>	<b>Abuztuak 1 –abuztuak 30 / 1 agosto – 30 agosto</b>
<b>Bonuak erabili / Utilización de bonos:</b>	<b>Abuztuak 1 – abuztuak 31 / 1 agosto – 31 agosto</b>
<b>Justifikazio epea / Plazo justificación:</b>	<b>Irailak 21 – irailak 25 / 21 septiembre – 25 septiembre</b>
<b>Udalak ordaintzea / Pago del Ayuntamiento:</b>	<b>Irailak 28 – urriak 9 / 28 septiembre - 9 octubre</b>
<b>IRAILA / SEPTIEMBRE</b>	<b>EPEAK / PLAZOS</b>
<b>Bonu Kopurua / Cantidad de bonos:</b>	<b>1.000</b>
<b>Bonuak erosi / Compra de bonos:</b>	<b>Irailak 1 – irailak 29 / 1 septiembre - 29 septiembre</b>
<b>Bonuak erabili / Utilización de bonos:</b>	<b>Irailak 1 – irailak 30 / 1 septiembre - 30 septiembre</b>
<b>Justifikazio epea / Plazo justificación:</b>	<b>Irailak 21 – irailak 25 / 21 septiembre – 25 septiembre</b>
<b>Udalak ordaintzea / Pago del Ayuntamiento:</b>	<b>Irailak 28 – urriak 9 / 28 septiembre – 9 octubre</b>
<b>URRIA / OCTUBRE</b>	<b>EPEAK / PLAZOS</b>
<b>Bonu Kopurua / Cantidad de bonos:</b>	<b>1.000</b>
<b>Bonuak erosi / Compra de bonos:</b>	<b>Urriak 1 – urriak 30 / 1 octubre – 30 octubre</b>
<b>Bonuak erabili / Utilización de bonos:</b>	<b>Urriak 1 – urriak 31 / 1 octubre – 31 octubre</b>
<b>Justifikazio epea / Plazo justificación:</b>	<b>Urriak 19 – urriak 23 / 19 octubre – 23 octubre</b>
<b>Udalak ordaintzea / Pago del Ayuntamiento:</b>	<b>Urriak 26 – azaroak 6 / 26 octubre – 6 noviembre</b>
<b>AZAROA / NOVIEMBRE</b>	<b>EPEAK / PLAZOS</b>
<b>Bonu Kopurua / Cantidad de bonos:</b>	<b>1.000</b>
<b>Bonuak erosi / Compra de bonos:</b>	<b>Azaroak 1 – azaroak 29 / 1 noviembre – 29 noviembre</b>
<b>Bonuak erabili / Utilización de bonos:</b>	<b>Azaroak 1 – azaroak 30 / 1 noviembre – 30 noviembre</b>
<b>Justifikazio epea / Plazo justificación:</b>	<b>Azaroak 16 – azaroak 20 / 16 noviembre –20 noviembre</b>
<b>Udalak ordaintzea / Pago del Ayuntamiento:</b>	<b>Azaroak 23 – abenduak 4 / 23 noviembre – 4 diciembre</b>
<b>ABENDUA / DICIEMBRE ****</b>	<b>EPEAK / PLAZOS</b>
<b>Bonu Kopurua / Cantidad de bonos:</b>	<b>1.000</b>
<b>Bonuak erosi / Compra de bonos:</b>	<b>Abenduak 1 – abenduak 30 / 1 diciembre – 30 diciembre</b>
<b>Bonuak erabili / Utilización de bonos:</b>	<b>Abenduak 1 – abenduak 31 / 1 diciembre – 31 diciembre</b>
<b>Justifikazio epea / Plazo justificación:</b>	<b>Urtarrilak 4 – urtarrilak 15 / 4 enero – 15 enero</b>
<b>Udalak ordaintzea / Pago del Ayuntamiento:</b>	<b>Urtarrilak 18 – urtarrilak 29 / 18 enero – 29 enero</b>